

## 2014ko Ramón y Cajal laguntzak

### Esteka:

<http://www.idi.mineco.gob.es/portal/site/MICINN/menuitem.dbc68b34d11ccb45d52ffeb801432ea0/?vgnnextoid=65437fc6ee0f9410VgnVCM1000001d04140aRCRD&vgnnextchannel=67a04939e6b42410VgnVCM1000001d04140aRCRD>

### Helburua:

175 laguntza deitu dira (horietatik 3 ehuneko 50eko edo gehiagoko desgaitasuna duten pertsonentzat erreserbatuko dira) xede honetarako:

- a) 5 urterako kontratatzea I+G zentroetan ibilbide nabarmena duen Estatuko edo atzerriko ikertzaile bat.
- b) Lanpostu iraunkorrek sortzea.

### Ezaugarriak:

#### a) Doktoreak kontratatzea 5 urterako.

- Ikertzailea I+G zentro kontratatzaileko lanpostuan hasten den egunetik aurrera zenbatuko da.
- Kontratu bakoitzerako urteko laguntza 33.720 eurokoa izango da.
- Kontratatutako pertsonak kolaborazio osagarriak egin ahal izango dituzte irakaskuntza zereginetan, beren erakundean edo beste batean, urtean gehienez 80 ordu, beraiek hala eskatuta eta beren erakundearen onespenerekin.
- Bestalde, kontratatutako pertsona bakoitzeko 40.000 euroko laguntza gehigarri bat emango da kontratatutako pertsonaren ikerketa jarduerak gauzatzearekin lotura zuzena duten gastuak ordaintzeko, kontratuaren lehenengo lau urteetan zehar, eta diruz lagundu ahal izango diren gastuak honako hauek izango dira:
  - Laguntzaileak kontratatzeko pertsonal gastuak (doktoreak, goimailako tituludunak eta teknikariak).
  - Ekipamendu zientifiko-teknikoa (ekipo informatikoak eta ordenagailu programa teknikoak barne) erosteko, alokatzeko, mantentzeko edo konpontzeko gastuak.
  - Material bibliografikoa.
  - Material suntsikorra, hornidurak eta antzeko produktuak.
  - Bidaiak eta dietak.
  - Biltzar, mintegi eta konferentzia zientifikoetarako inskripzio gastuak.
  - Azpiegitura zientifiko eta tekniko bereziak eta SGIKER zerbitzuak erabiltzeko eta haietara sartzeko kostuak.

- Jabetza industrial edo intelektualeko eskubideak eskatzeko kostuak eta horiek mantentzeko gastuak.
- Argitalpen eta zabalkunde gastuak.
- Jarduerarekin lotura zuzena duen eta jarduera gauzatzeko beharrezkoa den beste edozein gastu.

b) Lanpostu iraunkorrak sortzea

- 100.000 euro jarriko dira plaza bakoitzeko.
- Plaza betetzeko, ibilbide nabarmen bat erakusten duten ekoizpen eta jarduera zientifiko-teknologikoaren kalitate baldintzak agertu beharko dira.
- Lanpostuak kontratazioaren laguntzaren lehenengo lau urteei dagokien segimendu txostena ebaluatu ondoren beteko dira.

**Eskaerak aurkezteko epea:**

Abenduaren 9tik 2015eko urtarrilaren 20ko 15:00ak arte.

**Parte hartzen duten ikertzaileen betekizunak:**

1. Doktore gradua edukitzea. Doktore graduak 2004ko urtarrilaren 1etik 2011ko abenduaren 31ra bitartean lortutakoa izan behar du. Doktore graduaren lorpen datatzat hartuko da doktore tesiaren defentsa eta onarpen ekitaldiaren data.

Ondorengo egoeretan hasierako epea zabalduko da, betiere, etete aldiak eskaerak aurkezteko epea amaitzen den dataren eta 2004ko urtarrilaren 1aren artean gertatu badira:

- Amatasun edo aitatasun aldien kasuan, urtebeteko zabalkuntza aplikatuko da seme edo alaba bakoitzeko.
- Eskatzailearen gaixotasun larria edo istripua, 3 hilabeteko edo gehiagoko baja medikoa eragin duena. Justifikatutako baja aldiaren adinako zabalkuntza aplikatuko da.
- Mendekotasun egoeran dauden pertsonak zaindu badira gutxienez 3 hilabetez, justifikatutako aldiaren adinako zabalkuntza aplikatuko da.

Desgaitasuna duten pertsonen ataleko eskaintzaileen kasuan, doktore graduak 2001eko urtarrilaren 1etik eta 2009ko abenduaren 31ra bitartean lortutakoa izan behar du, eta aurrez aipaturiko zabalkuntzak aplikatu ahal izango dira.

Doktore titulu bat baino gehiago duten eskatzaileen kasuan, lortutako lehenengo tituluari lotzen zaizkio betekizunak.

2. Aurreko Ramón y Cajal deialdietan onuradun ez izana.
3. Juan de la Cierva azpiprogramako laguntzen edo doktorego osteko prestakuntzarako laguntzen onuradun ez izatea, gutxienez urtebetez jaso dutenen kasuan izan ezik. Aldi hau I+G Zentroan hasi eta 2015eko ekainaren 1era bitartean zenbatuko da, kontratu etenaldiak kanpo utzita.
4. Mugikortasuna: Ikertzaile bakoitzak beste I+G Zentrotan egonaldiak egin behar izan ditu, 24 hilabetekoak gutxienez.

Mugikortasunaren baldintza betetzat emango da atzerritar unibertsitatetan ikasketak burutu eta doktore titulua lortu dutenenentzat, baita desgaitasuna duten pertsonen ataleko eskaintzaileen kasuan ere.

24 hilabeteko epea zenbatzen hasiko da doktore graduaren lorpen datatik eranste hitzarmen datara arte.

#### **Eskaerak aurkeztea:**

1. Aurrez inskribatuta egon ezean, Eskatzaileen Erregistro Bateratuan inskribatu beharko da, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren egoitza elektronikoan, "Ikertzailearen erregistroa" atalean.
2. Eskatzaileak eskaera formulario elektronikoa beteko du, ikerketa arlo zientifiko bati erreferentzia eginez. Eskaerarekin batera, honako hauek erantsiko dira formatu elektronikoan:
  - Curriculum vitae arautua, web orrian eskuragarri dagoena. <https://cvn.fecyt.es/>. Ahal bada, ingelesezko bertsioa komeni da.
  - Hautagaiaren ikerketa ibilbidearen memoria eta garatu duen ikerketa ildo nagusia, gehienez bere 5 ekarpen garrantzitsuenak nabarmenduz curriculum vitaean jasotakoen artean.
  - Indarreko pasaportearen kopia, Espainian bizi ez diren atzerritarren kasuan.
  - Doktore tituluaren eta ziurtagiri akademikoaren kopia, doktore gradua lortu den data berariaz adierazita.
  - Aurrez aipaturiko etete kasuei lotutako pertsonak hala adierazi behar dute eskaeran, eta egiaztatzea erantsi behar dute.
  - Desgaitasuna duten pertsonen ataleko eskatzaileek hala adierazi beharko dute eskaeran, eta % 50eko edo gehiagoko desgaitasuna dutela egiaztatzen duen agiria erantsi behar dute.
3. **Curriculum vitaean eta Ikerketa ibilbidearen eta ikerketa ildoaren memorian ezin izango da zuzenketarik egin.**
4. Eskaera honako prozedura hauetakoren bati jarraituz egin daiteke: Sinadura elektronikoaren bidez, Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioaren egoitza elektronikoan bertan.

Bidalketa telematikoa egin ondoren, aplikazio telematikoak automatikoki sortzen dituen dokumentuak inprimatuko ditu, paper formatuan, sinatuko ditu eta 30/1992 Legearen 38.5 artikuluan adierazitako lekuren batean aurkeztuko ditu.

**Ebaluazio irizpideak:**

Eskaerak honako irizpide eta azpi-irizpide hauen arabera ebaluatuko dira:

1. Curriculum meritua: 0 eta 80 puntu artean.
  - Ekarpinak: 0 eta 50 puntu artean.
  - Nazioarteko jardueran parte hartzea: 0 eta 25 puntu artean.
  - Gainerako curriculum meritua: 0 eta 5 puntu artean.
2. Hautagaiak bere ikerketa ildo zuzentzeko duen gaitasuna: 0 eta 20 puntu artean.

Finantziarako proposatuko dira 85 puntu edo gehiago lortzen dituzten eskaerak, arlo zientifiko bakoitzeko finantza daitekeen laguntza kopurura iritsi arte.

**Harremanetarako pertsonak UPV/EHU:**

Telefonoa: 94 601 80 08

Helbide elektronikoa: [convocatorias.dgi@ehu.es](mailto:convocatorias.dgi@ehu.es)